Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko uztailaren 17a, astelehena — 138 — Lunes, a 17 de julio de 2023

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## LEZOKO UDALA

*Saxofoi Irakasle lanpostua oposaketa-lehiaketa bidezko deialdia: onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda.*

2022ko abenduaren 28ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEKO 245. zenbakian 20/2021 Legearen 2.1. artikulutik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa-prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorrak eta espezifikoak argitaratu ziren.

Hau kontutan harturik eta Lezoko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Administrari lanpostua betetzeko hauta-prozesuan parte hartzeko eskabideen aurkezpenerako epea amaiturik, Alkatetza honek erabaki du:

*Bat.* Gizarte Zerbitzuetako administrariaren lehiaketa oposizio prozesuan parte hartzeko onartu nahiz baztertuak izan diren izangaien behin-behineko zerrenda onartzea eta argitaratzea (I. eranskina).

Behin-behineko zerrenda honetan, auto-balorazioaren inprimakian lortutako puntuazio osoa eta alegatutako hizkuntza-eskakizuna jasotzen da. Zerrenda horiek beherantz ordenatuko dira, guztizko puntuazioaren arabera.

Interesdunek hamar egun balioduneko epea izango dute behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak jartzeko edo zerrendatik kanpo uztea edo berariaz ez sartzea eragin dituzten akatsak edo omisioak zuzentzeko, dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Lezoko Udaleko webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Oinarri Orokorren, 7.5. atalean zehaztendenaren arabera: eskabide-orrietako akatsen kasuan, interesdunari errekerimendua egingo zaio iragarkiaren bidez udal honetako iragarki-taulan eta www.lezo.eus web-orrian (enplegu publikoaren eskaintza), hamar egun balioduneko epean konpon dezan dokumentazio falta, izangaiak behar bezala sinatutako erantzukizunpeko adierazpenarekin bat etorriz, eta adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, atzera egingo duela eskaeran.

Ez ordaintzea edo ordainketa osatugabea konpondu ahal izango da, soil-soilik, eskatzaileak alegatutako salbuespenaren onuradun izateko baldintzak betetzeari buruz egindako akatsaren ondorio denean.

Aurreko paragrafoan adierazitako epean, ezingo dira aldatu parte hartzeko eskaeran adierazitako datuak eta merezimenduak. Erreklamazioak eta akatsen zuzenketak erregistro elektronikoaren bitartez aurkeztu behar dira, Lezoko Udaleko erregistro elektronikoaren bidez (www.lezo.eus).

*Bi.* Behin betikotzat joko dira behin-behineko zerrenda hauek, erreklamaziorik jaso ezean 10 laneguneko epean.

*Hiru.* Erabaki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Ebazpen honen aurka, prozesutik behin betiko baztertutako pertsonek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez deza-

## AYUNTAMIENTO DE LEZO

*Proceso de selección a través de concurso-oposición del puesto de Profesor/a de Saxofón: lista provisional de admitidos/as y excluidos/as.*

En el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 245, de 28 de diciembre de 2022, se publican las bases generales y específicas que rigen los procesos selectivos para la consolidación del empleo temporal de larga duración derivados del artículo 2.1 de la Ley 20/2021.

Visto lo que antecede y finalizado el plazo de presentación de solicitudes para tomar parte en el proceso selectivo para la provisión del puesto de Administrativo/a de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Lezo, esta Alcaldía acuerda:

*Primero.* Aprobar y publicar la relación provisional de aspirantes admitidos y excluidos al proceso de oposición (anexo I).

En esta relación provisional se recoge la puntuación total obtenida en el formulario de autovaloración y el perfil lingüístico alegado. Estas listas se ordenarán a la baja en función de la puntuación.

Las personas interesadas dispondrán de un plazo de diez días hábiles, contados a partir del día siguiente al de la publicación del presente Decreto en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la página web del Ayuntamiento de Lezo, para interponer reclamaciones contra la lista provisional o subsanar los errores u omisiones que hayan motivado su exclusión o no inclusión expresa. De conformidad con lo establecido en el apartado 7.5 de las Bases Generales, en el supuesto de defectos en las instancias se requerirá a la persona interesada mediante anuncio en el Tablón de Anuncios de este Ayuntamiento y en la página web www.lezo.eus (oferta de empleo público), para que, en el plazo de diez días hábiles, subsane la falta de documentación de conformidad con la declaración responsable debidamente firmada por la persona aspirante con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, previa resolución dictada al efecto.

Únicamente será subsanable el impago o pago incompleto cuando sea consecuencia del error de la persona solicitante sobre el cumplimiento de las condiciones para ser beneficiaria de la exención que hubiera alegado.

En el plazo señalado en el párrafo anterior, no se podrán modificar los datos y méritos alegados en la solicitud de participación. Las reclamaciones y subsanaciones de errores deberán presentarse a través del registro electrónico del Ayuntamiento de Lezo (www.lezo.eus).

*Segundo.* Las siguientes listas provisionales se declararán definitvas salvo reclamación en el plazo de 10 días hábiles.

*Tres.* Publicar el presente acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Contra la presente Resolución las personas excluidas definitivamente del proceso podrán interponer directamente recurso

EK\CV GAO-I-2023-05297

kete zuzenean Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, horren aurretik aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio alkate-lehendakariari, argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean. Kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri berraztertzeko errekurtsoa berariaz ebatzi arte edo presuntziozko ezespena gertatu arte. Nolanahi ere, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Lezo, 2023ko uztailaren 11.—Mikel Arruti Salaberria, alkatea.
(5297)

I. ERANSKINA

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA

— Onartuen zerrenda: Txanda irekia - sarbide orokorra:

contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación.

No obstante, con carácter previo, podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante el Alcalde-Presidente, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no podrá interponerse recurso contencioso-administrativo hasta que se resuelva expresamente el recurso de reposición o se produzca la desestimación presunta. No obstante, podrá interponerse cualquier otro recurso que estime oportuno.

Lezo, a 11 de julio de 2023.—El alcalde, Mikel Arruti Salaberria.
(5297)

ANEXO I

LISTA PROVISIONAL DE ADMITIDOS/AS Y EXCLUIDOS/AS

— Listado de admitidas/os: Turno libre - acceso general:

| *NAN*<br>*DNI* | *Izen abizenak*<br>*Nombre y apellidos* | *Autobalorazioa*<br>*Autovaloración* | *Hizkuntz eskakizuna*<br>*Perfil lingüístico* |
|---|---|---|---|
| ***0222** | OLAIA,ASKASIBAR,HOYOS | 24,4146 | 3 |
| ***6973** | SILVIA,MERINO,IGLESIAS | 20,0000 | 3 |

— Baztertuen zerrenda: Txanda irekia - sarbide orokorra:

Ez dago.

*Oharrak:*

1. Onarpenen zerrendan agertzeak ez du esan nahi interesdunei aitortzen zaienik hautaketa-prozesuan eskatutako baldintzak betetzen dituztela.

2. Auto-balorazioak izangaiak bere eskaeran alegatutako eta auto-baloratutako merezimenduen emaitza baino ez du islatzen. Ez du esan nahi puntuazio hori zuzena denik.

Listado de excluidas/os: Turno libre - acceso general:

No hay.

*Notas:*

1. La inclusión en la lista de admitidos no implica el reconocimiento a las personas interesadas del cumplimiento de los requisitos exigidos en el proceso selectivo.

2. La autovaloración sólo refleja el resultado de los méritos alegados y autovalorados por el aspirante en su solicitud. No quiere decir que esa puntuación sea correcta.

EK\CV GAO-I-2023-05297